

Zer ote?

ibilixan Ibilixan

Bertso Eskola

Soraluzeko

udala

“Udalbiltzan”

Haizeak

Soraluzen

eragindakoak

Xuban Catalan:

Kirola Euskeraz



Otsailaren 3 an

San Blas !!

GOL S.A. industriak

TORNILERIA-ESTANPAZIOA ETA EXTRUSIOA HOTZEAN

Tfnoa. 943752100
Telex 38665GOL-E




20590 SORALUZE

EKAIN Inmobiliaria.
ZARAUZ

San Ignacio 1, behe
Tel. 943 89 40 84

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZARAUZ	Itxasmendi kalea	3 logela, trasteroarekin eta altzariekin	Galdetu
ZARAUZ	Etxebeste kalea	4 logela, 2 komun eta garajea	Galdetu
ZARAUZ	Orape kalea	3 logela, 2 komun. Etxe berria	Galdetu
ITZIAR		Hondartzara begira eta garajedun 4 duplex	Galdetu
ZARAUZ	"Mundo Mejor"	3 logela, komuna, trastero handia	Galdetu
ITZIAR		3 logela, garajea, itsasora begira	Galdetu
ZARAUZ	Urdaneta kalea	4 logela eta bi komun	Galdetu
ZARAUZ	Zigordia kalea	5 logela, 3 komun eta egongela oso handia	Galdetu

Aurkibidria

<u>EDITORIALA</u>	1.Orrialdea
<u>GUTUNAK</u> Zutabea: "Etorkizun Beltza" Ubane Madera	2.Orrialdea
<u>KALE INKESTA</u> Galdera: Beherapenak garaiz?	3.Orrialdea
<u>GIZARTEA</u>  Haizetia plaentxian	4.Orrialdea
 Udalbiltza	
<u>BERRI MOTZAK</u>	6.Orrialdea
<u>KALE KANTALIAN</u> Ibilixan Ibilixan Bertso Eskola	8.Orrialdea
<u>GAZTE TXOKO</u>	9.Orrialdea
<u>KULTURA</u> Koldo Zuazon "Deba Ibarreko Euskeria" liburua	10.Orrialdea
	
<u>ATZERA BEGIRA</u>	12.Orrialdea
<u>SUKALDARITZA</u> San Blas opilak	13.Orrialdea
<u>KIROLA</u> Xuban Catalan: "Kirola Euskaraz"	14.Orrialdea
<u>GURE SORGINA</u> Diabetesa	15.Orrialdea
<u>LEHIAKETA</u>	16.Orrialdea

Ondiok be gabon zaharretako ajia gorputzetik kendu barik neukala hartu neban nik urteko lehenengo desilusifua; 2000 efektuakin arpa jo dozkuela danori! Ez bidio, ez ordenadore (eta txarrena, ezta bankuko kontuak be) ez dau inungo kanbixo rarorik euki! Igual pasau dana eta gu oin arte konturatu ez garana zera izen da: ditxosozko 2000 efektuori gripia dala! Egunotan anbulatorixuan paruan ofizinan baino jende gehixago dabil barren...

Urtarrileko aldapia famosua ei da (baitxa Febrerokua be). Hori xamurtu arte behintzat ezingo dou gastu haundirik ein, soldatak eta bestelako diru laguntzak ondo gorde biharko ordia. Eta bide batez, diru laguntzaren baten zain gaozenok esperantzarik sekula ez galtzia dogu erremedixorik onena...

Urte barrirako promesak ein al dozuez? Badakizue, erretziari lagatziana, pisua bajatziana, eta definitiban hainbat eta hainbat gizar. Pil-Pileanekook be ein doguz guriak. Printzipalena herrixari hilabetero txapia emongo dutzan aldizkarixa buzoietan sartzia, kalidadia eta eskeintza hobetuz, herriko ekintza kulturalak animatzia eta bi hitzetan, Soralezetar guztien bizitzan partetxo bat izatia eta bertan finkatzia (aaa! eta honek ez dia gizurrak!!!).

Telegrapak: Enteratu gara azken gabonetatik hona Soralezeko futbol zelaiko tribunan "tendido sof" ala "tendido sombra" sarrera erosteko aukera dagoela... **STOP.** Gabonetan Olentzerok ekarri ez dionarentzako "escalestri" ederra montatu zaigu poligono irteeran! **STOP.** Kanpandorreko erlojua faltan botatzen ez duenak bota dezala lehen harria. **STOP.** Formalak izan eta hurrengo alerarte!

Argitaratzailea: Pil pilean kultur elkarte. Frontoia 5b.
Lan taldea: Egoitz Unamuno, Inaki Alberdi eta Eduardo Pombar; Gurutze Ariznabarreta, Maite Etxeberria, Egoitz Unamuno. Amaia Agirre, Aitziber Gantxegi, Jose Ramon Gomez, Elene Alberdi, Pedro Deza, Ubane Madera, Bittor Trebiño, Oier Oregi, Gorka Prieto, Aitor Madrid, Xuban Catalan. eta Sabin Mendizabal. **Publizitatea:** Inaki Alberdi eta Elene Alberdi. (943751304 tel.) **Banaketa:** Pil Pilean. **Tirada:** 1700 ale. **Inprimategia:** Gertu Koop.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Denda berria

textil
agirrezabal

A

AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metrora

Gotzon Agirrezabal
Tel/Faxo: 943 76 72 52

ORDUTEGIA
astolohenetik zapatutik:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00

- Alfonbrak eta moketak (fabrikatik zuzenean)
- Hondartzarako toailak (belgiarrak)
- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak

Amillaga Industriadela, 5 • BERGARA • Renault-en ondoan

SORALUZEEKO HERRIARI, EUSKAL GIZARTEARI

1,2,3,...10,,11,...20, 30,40, 50...89 egun, gau, egunsenti. Zihurrenik beraien gorputz ahulek hotza, dardara izugarriak sentitzen dituzte. Euskal preso politikoak 89 egun baino gehiago gose greban. Baina beraien mezuak berotasuna bidaltzen digu, beraien su garrak pizturik dirau eta euskal gizartea disdiratu nahi dute.

Beraien eskua luzatzen diguten hontan, geurea zabalik bidali behar diegu. Euskaldunak direlako ari dira borrokan, beraien eskubideak zeintzu diren aldarrikatzen eta gure erakuntza nazionalerako prozesu hontan zuena eta gurea bezala, beraien eskubidea da bertan parte hartzea, alegia, beharrezkoa da beraien partehartzea.

Euskal gizarteak bat egin behar du presoen borrokarekin, guztiok eman behar dugulako zerbait beraiek dena eman behar ez dezaten.

Hauek dira borrokaren oinarri gisa plazaraturiko aldarrikapenak:

- Euskal preso politiko guztien Euskal Herrirartzea.
- Arrazoi ezberdinengaitik gaixorik diren preso guztien kaleratzea.
- Baldintzapeko askatasunaren epeetan direnen kaleratzea.
- Entrega eta estradizioak amaitzea eta Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea.
- Euskal preso politiko guztien kaleratzea, Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan partehartzeko.

Euskal Herriaren garraxia bilakatu zaizkigun aldarrikapenak behin eta berriro ohikatu behar ditugu, espainiar eta frantziar estatuetan entzun ditzaten, baina batez ere euskal gizarteak bere osotasunean barneratu ditzan eta sensibilizatu dadin. Har dezagun konpromesua eta borrokatu deza-

gun presoekin batera, borrokatu dezagun denok batera eta preso eta errefuxiatuak etxera. ETXEAN ETA BIZIRIK NAHI DITUGU ! AMNISTIA !

**Soraluzeko Amnistiaren
Aldeko Batzordea.**

ETORKIZUN BELTZA



Ubane Madera

Kezkatuta nabil azkenaldian nire herriarengatik. Garapena eta modernitatea nagusi den mundu honetan, Plazentzia atzean geratzen ari dela iruditzen zait. Herrian dugun etxebizitza beharra eta orain dauden askoren egoera kaskarra albo batera lagata, bestelako zerbitzuetan eskasia da nagusi gure herri txiki honetan. Hori xe da betidanik kanpokoengandik entzun izan duguna eta badirudi azkenean arrazoia eman beharko diegula. Txurruketik datorrenak, adibidez, lehenengo ikusten duena da, usteltzen ari den Albesa lantegia eta pareko zelaia. Gauza ugari egiteko erabil litezke biler zati horiek, ez duzue uste? Etxeak, parkeak... edo besterik barik Txurrukenerako bide atseginago bat.

Apurtxo bat aurrerago segituz gero, Anbulategi zahararren parera iritsi gara. Francoaren garaikoa izanik oraindik ere hortxe dirau; erdi jausita, baina hortxe. Laister, ondare historikoa dela esan eta museo moduan erabili genezake.

Eta zer esanik ez dago ondoan dagoen parketxoaz. Auzotarrek erabiltzen dute, eta ziur eskertuko luketela itxura hobetuko balu. Horrela izanez gero, agian jende gehiagok ere erabiliko luke, egoitzako nagusiek, esaterako.

Ikusten duzuen moduan, herrira sartu ere ez naiz egin eta aldizkariak ematen didan zutabe osoa bete dut. Azterketa sakonagoa eginez gero, ga-beziak izugarriak lirateke.

Dagokionari esan nahi diot, herritarrok Soraluzeren etorkizunagatik kezkatuta gabiltzala eta badela ganorazko zerbait egiten hasteko ordua. Guztion onerako izango da.

Garaiz heltzen al dira beherapenak?



PEDRO ARRIAGA
71 URTE JUBILATUA

Nere ustez beherapenak berandu heltzen dia, gainera jende guztia batera jua ten da erostera, danak egun berdinian eta ixa ezin da erosi. Gauzarik onenak gorde eitxen ditzuzte eta merezi ez dabenak lagatzen dabe. Pentsatzen dot ez dabela merezi zain egoterik, beherapenak ez dabe merezi.

Neretzako urtamillako beherapenak berandu datoz, ze normalian Olentzerorako eta Erregietarako erositxa daukazu erosi bihar dan guztia. Udako beherapenetan, denda batzuetan gauza batzuk gorde eitxen ditzuzte, baina dana dala bizkor mobitzen bazara merezi dau zain egotia.



ALAINE ARRUABARRENA
21 URTE IKASLEA



KONTXI ELKORO
57 URTE ETXekoANDREA

Beherapenak beti egon izan dia, baina nere ustez ez zan egon biharko ze gehixenetan dirua alperrik gastatzen da bihar ez dian gauzak erosten eta gero ez erabiltzeko. Beste aldetik lehenau izango bazian saltzailiek ez zebe ezebe irabaziko, Gabonetan saldu ein bihar dabe.

Erosle moduan, esan behar dut, ez naizela zain egoten, azken momentuan ez bait da gelditzen zuk nahi duzuna beti faltako da modeloa, taila edo kolorea. Beste batzutan, denboraldiz kanpoko gauzak jartzen dituzte eta orduan dirua alperrik galtzen da, gero ez bait duzu jartzen. Beherapenetan ez da inolako "txoilorik" topatzen gehienena deskonturen bat.



LOURDES MAIZTEGI
49 URTE SALTZAILEA



ONAR MUGURUZA
23 URTE MONTADOREA

Beherapenak urte guztian izan bihar zian. Urtarrileko beherapenak, gabonak pasau eta segitxuan etortzen dia jentia dirua gastau dabenian. Nik erosten dot beherapenetan, baina bihar dotena eta gainera gabonetan desberdina da detailiak ein bihar dia ein bihar dianian, beherapenak baino lehena go.

Ni zain egoten naiz, nere taila topatzeko ez dotelako arazorik eukitzen. Zerbait falta badot aurretik erosten dot, baina normalian beherapenetan erosten dot eta "kapritxo" bat bada dudarik barik beherapenetan erosiko dotela. Askotan gertatzen da denboraldiko gauzak gorde eitxen ditzuztela, baina nik erosten dot batzutan bihar ez dana bebai.



ZIORTZA IÑARRA
27 URTE IDAZKARIA

ARMENDIA
JATETXEA

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

ATXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu Kalea 1 Tfnoa: 943752131

SORALUZE

HAIZEAK IA ERAMAN GINTUEN.

Joan zen Abenduan izandako haizeteak kalte ugari eragin zituen herrian.

Abenduaren 27an guztiok gabonetako oporretan pentsaten ari ginela izugarritzko haizete bat etorri zen. Egun batzuk lehenagotik telebistaz eta irrati abisua eman bazuten ere haizetea uste baino bortitzagoa suertatu zen eta eragin zituen kalteak ere halakoxeak izan ziren.

Zorionez gizabanakoarekiko kalterik eragin ez bazuen ere mugitu zituen bazterrak gogor asko eta bereak eta bi egin zituen. Kalterik larriena edo jende gehienari eragin ziona argi indar falta izan zen. Arratsaldeko 7tan argia joan eta hurrengo arratsalderarte herri erdi argirik gabe egon zen, eta beste zenbaitzu luzaroago ere bai.

Argi indarrari eragindako kalteez gain, basoan eta mendian kontaezinalako zuhaitz pila bota eta atera zituen. Gainera errepede ondoko zuhaitz asko bide erdira erori ziren eta zenbait errepede eta bide itxita gelditu ziren.

Eduardo Pombar .



Irudietako baserrian, negutegia guztiz hautsita utzi zuen, burdinak hautsi eta plastikoak alde guztietara barreiotu zituen



Irudietako flashagatik ondo antzeman ezin badaiteke ere, denda, taberna etabar kandela eta linternen laguntzaz atenditu behar izan zituzten urreratzen ziren bezeroak



Haizeak kalte haundiak eragin zituen pinudietan. Apurtzeari gutxitxo eritzi itxuraz eta pinu asko ipurditu atera zituen.



Karakatera bidean, hasierako bidezatan keixetako errekaatxo baina goraxeago, goiko pinudiko zuhaitz ugari bota zituen haizeak eta nahiko lan izan zuten bidea libratzen.



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

ALAITZ TABERNA

**EZOZI ETORBIDEN
TFNONA: 943751190
SORALUZE**

UDALAK ATXIKIMENDUA ADIERAZI DIO UDALBILTZARI

Joan zen urtarrilaren 4ean arratsaldeko 7retan gure Udaletxean Pleno berezi bat burutu zen. Udalbatzarra biltzeko xedea, alkatetzak "Udalbiltzaren Sor-kuntzari eta Helburuekiko Atxikipen-mozio Politikoa" udalbatzarkideei aurkeztea, onartua ala baztertua, izan zedin.

Hurrenez hurren hauexek izan ziren mozioaren puntuak :

- Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea bere egiten dituela Soraluzeko Udalak.
- Bertako kide izateko borondatea adierazten duela.
- Udalbiltzari Udala erabakiaren berri ematea.
- Eta komunikabideen bitartez herritarrei jakinaraztea.

Plenora hurbildutako alderdi politikoak, guzti honen berri izan ostean aldarrikapena bozketatzeari ekin zioten. Honako hauxek izan zirelarik emaitzak : Mozioa onartua izan zen EAJ, EH eta EAren aldeko bozkekin, PP eta PSE-PSOE aurka botatu zuten.

Biltzarraren ostean ekitalditxo bat burutu zen, dantzariak agurra eta ikurrin dantza dantzatu zituzten eta bertsoak ere entzun ahal izan ziren. Bukatzeko gura izan zuen orok bere atxikimendua azaldu ahal izan zion Udalbiltzari sinadura bilketa egin baitzen.

"Bilbon 1999ko irailaren 18an Euskal Herri osoko 1800 zinegotzi eta alkaten artean erabaki zen Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra (Udalbiltza) sortzea"



UDALBILTZA ren bizitza laburra

1999ko otsailaren 6an Euskal Herri osotik etorritako hainbat alkate eta zinegotzien bilkura burutu zen Iruñean. Bertan zenbait helburu eta egiteko zehaztu zituzten agiri baten bitartez.

Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatu zuten. Prosezu dinamiko eta demokratiko baten oinarriturik eta euskal herritar ororen partehartze eta erabakimen askean oinarrituta, Euskal Herriaren egituraketa politiko nazionala eraikitzen laguntzea. Erakunde iraunkorra izatea, borondateak pilatu eta batzeko sortua, eta ez beste erakunde batean bihurtzeko asmorik.

Baina bai Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoa aztertzea eta eztabaida aztertzeke nahia. Euskal udalerrien arteko harremanak sendotzeko gogoia du, eta Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzkoa egin. Eta ondoren, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka amankomuneei era bateratuan aurre egiteko. Euskal Herria nazio berezkoa eta ezberdindua dela nazioartean aldarrika-

tzea eta nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan.

Bilbon deialdi berri bat egin zen 1999ko irailaren 18an, 1800 zinegotzi eta alkate batzartu zirelarik. Aurreko biltzarra lez zenbait erabaki hartu zituzten. Udal oinarria duen erakunde nazionala sortzea. Bere izen ofiziala *Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra* izan da ere, erabilgarritasuna eta nahasketak ekiditeko *Udalbiltza* bezala aldarrikatu zuten.

Erakunde izendatu berrian lan taldeak antolatzen dira : Euskal Herriaren naziotasuna garatuko duen bat, Euskal Herriaren oinarritzko diagnostikoa egingo duen beste bat, Euskal Herria nazio bat dela nazioartean islatuko duen taldea, Euskal Herriaren barne egituraketa instituzionala aztertu eta eztabaidatuko duen lantaldea eta *Udalbiltzaren* bai barne antolakuntzaz zein funtzionamenduaz arduratuko den taldea. Azken erabakia, Batzorde Iraunkor berriaren hamabost kide izendatu eta onartzea izan zen.

LAKUESTA OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU

SANTA ANA 22
TEL: 943753059

20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)



UDAL KONTU

UDALEAN EGITEN DENAREN INFORMAZIOA HELARAZIKO ZAI E HERRITARREI

Udalak sei hilabete behin aterako den aldizkari informatibo baten bidez, herritar guztiei denbora tarte horretan udalean egin denaren berri emango die. Aldizkaria, euskeraz eta erderaz idatzia izango da eta tartean, udal batzarretan hartu diren erabakiak zein diren jakinerazteaz gain, batzordeek izan dituzten arazo, egin dituzten akordio eta aurrera begira burutu asmo dituzten ideia berrien eta abarren berri ere emango da. Udalaren asmoa, herritarrei informazio instituzionala urreratu eta ezagutaraztea da. Dena ondo bada, hil honetan irtengo omen du aldizkari honen lehen aleak.

UDALAK EZOZIKO FUTBOL ZELAIKO ISTALAZIOAK IKUSKATUKO DITU

Haizetearen eraginez futbol zelaiak jasan dituen kalteak ikusita eta lehenengo aldia ez dela jakinda, eztabaida askoren ondoren, Udal Korporazioak istalazioak ikuskatzeko erabakia hartu zuen. Hontaz gain, aparejadoreari herrian haizeteak sortu dituen kalteen gaineko balorazio bat egitea eskatu zaiola ere jakinarazi zen pleno hartan.

UDALTZAINEK URTE GUZTIAN LAN EGINGO DUTE

Urtarrilean Udalak herritarrei zuzendutako gutun baten bitartez, honako erabaki honen berri eman zuen; lehenengo eta behin, Udaltzainek urte guztiko egunetan lana egingo dutela. Honekin batera Udal agiriak, lan egun nahiz jaiegunetan, espaloietan, onezkoei bidea oztopatzen, bigarren ilaran eta trafikoko seinaleak horrela adierazten duten tokietan ibilgailuak uztea galerazita dagoela gogoratu zuen. Bestalde, jendearen jokaera bideratzeko helburuarekin, batez ere jai egunetan, arauhauste hauek salatuak izango dira, eta behar izanez gero, arau hausle diren ibilgailuak ibilgetuko (inmobilizatuko) dira. Neurri guzti hauek hartuta, Udalak ibilgailu eta oinezkoen trafikoaren hobekuntza lortu nahi du.

IRAKURLEOK, BERRIEMAILE IZATEKO ETA ALDIZKARIAN, DITUZUEN KEXAK ETA ZORION AGURRAK ARGITARATZEKO AUKERA IZANGO DUZUE.

Pil Pileanek jakinarazi nahi dizue irakurle zaituzten guztioi, hemendik aurrera aukera daukazuela zuen mezu, kexa eta zorion agurrak telefono bidez igortzeko ere. Egin den edo egingo den ekitaldiren baten, herrian gertatu den zerbaiten, daukazuen kexaren baten berri eman edo norbait zoriondu eta agurtu nahi baduzue, deitu 943 75 13 04 telefonora eta utzi zuen mezua. Hori bai, argitaratu dadin nahi duzuen kexa edo zorion agurrak, motx motxa izan beharko du eta berarekin batera zuen izen abizenak ere utzi beharko dituzue. Animatu, eta zoriondu edo kritikatu, norbait edo zerbait, JAURTI TRANKIL edo ZORION AGURRRAK izeneko sail berrietan azalduko dira zuen esanak.

ARRATE AZKONAK BERE ERREKORRA HAUTSI DU BERRIZ

Urtarrilean Arrate Azkona plaentxiar atleta gazteak, Anoetan egin zen partehartze askeko proba batzuetan, 1,70 metroko jauzia egin eta lehenago zuen altura jauziko bere marka haustea lortu zuen. Jauzi honekin Arrate, Espainiar Estatuko emakumezkoen kategoriako elitean sartu da. Anoetan egin diren Euskadiko Txapelketan ere parte hartu du (emaitza datorren alean jakinaraziko dizuegu) eta hau gutxi ez balitz otsailean Anoetan egingo den Espainiako Txapelketan maila absolutuan lehiatuko da. Martxoan ere Anoetan perte hartuko du kadete mailako txapelketetan. Aupa Arrate!! Zorionak eta segi gogor!!



Erregeak ,zaldi gainean etorri ziren (humm! baina joan oinez?) eta karameloak banatu zituzten kaleetan zehar, eliz atarira joan aurretik.

OLENTZEROREN ETA ERREGIEN MEZUA

Aurten ere azken urteetan bezela Olentzero eta Erregeak izan ditugu herrian haur zintzo guztien gurariak entzun eta betetzeko. Olentzerok eta Erregeek eskatutakoa ekarri ez dienei joan zen urtean bihurri samarrak izan omen zirela eta aurten hobeto portatu daitezela esateko agindu digute. Beraz badakizue zer egin behar duzuen datorren urtean eskatutako opariak jasotzeko, gurasoen esanak bete!



Olentzerok haurtxoen gurariak eta gutunak hartzen zituen bitartean, atzekaldean bere laguntzaile tripontziek jan, edan eta kantuan egin zuten gogotik (alper halakoak).

PRESOAK EUSKAL HERRIRATZEAREN ALDE

Azken hilabete hauetan ugaldtu egin dira euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko ekimenak herrian. Urte askotan zehar os-tiralero Senideak dek deituta zubian egin izan den enkarteladaz gain asko izan dira abenduan eta urtarrilean egin diren ekintzak. Abenduan itxialdi bat egin zen udaletxean, Gabonetako Amnistiaren Aldeko Programaren barruan; Olentzerotan kantari, manifestazioa, enkarteladak, triptiko banaketak, Auto karabana Arrasatera. Euskal Herri osoan 700 pertsona inguruk egin zuten astebeteko gose greban ere hiru herritarrek parte hartu zuten. Udaletxean herriko preso batek bidalitako gutun irakurri zen. Baterak ere kontzentrazioak egin ditu Plaza Berrian, herriko beste elkarte batzuen atxikimenduarekin. Guzti hontaz gain, ekintza puntual asko egin dira, kartel ezarketak, hitzaldia, Solidarioen agerpenak eta abar eta abar.



Gabon Zahar egunean, arratsaldeko 8retan, Baterak deitutako kontzentrazio-ra jende asko bildu zen.



Jesus Hacharen omenez egiten den lasterketako partehartzaile bat amnistiaren aldeko kamiseta erakutsiz.

XVIII. HERRI KROSA ATXA MEMORIALA

Urtero lez aurten ere abenduan, Jesus Atxaren omenez herri krosa egin zen. Guztira 118 pertsonak hartu zuten parte lasterketan. Hona maila ezberdinetan irabazle suertatu zirenak:

SENIOR MAILAN *Gizonezkoetan:* Enrike Kabiketa (Arrasate)

Emakumezkoetan: Ia Datorren Urterako Animatzen diran.

KADETE-JUNIOR MAILAN *Gizonezkoetan:* Zigor Moreno (Zaldibar)

Emakumezkoetan: Maria Azkona (Soraluze)

HASIBERRIEN MAILAN *Gizonezkoetan:* Joseba Gallastegi (Soraluze)

Emakumezkoetan: Iruñe Moreno (Zaldibar)

BENJAMINEN MAILAN *Gizonezkoetan:* Unai Cabo (Elgoibar)

Emakumezkoetan: Garazi Arizaga (Soraluze)

AURRE BENJAMINEN MAILAN *Gizonezkoetan:* Aitor Arrese (Elgoibar)

Emakumezkoetan: Itxaso Egaña (Elgoibar)

Zorionak partehartzaile guztioi eta ea datorren urtean ere jendeak erantzuten duen (emakume nagusi horiek barne).



Argazkian lasterketan nagusien mailan parte hartu zuten korrikalariak

UDALTZAINEK KAPELA BERRIA

Udaltzainek kapela berria estreinatu dute abenduan. Lenagoko txapel gorria kendu eta 2.000 urterako kapela berria jarri dute buru gainean.

Dotoreago ote daude kapela berriarekin?



EGOITZ UNAMUNO: Bertso eskolako maisu eta bultzatzailea.

”Ibilixan Ibilixan Plaentxiako bertso eskolia da, eta herrixan bertsoalaritza indartzeko sortu da.”

Plaentxian dauan umore eta adarra joteko ohitxuriakin erreza litzake bertsoalaritzara gerturatzia eta itxurako saiurak eitxia. Horretarako nahikua izengo litzake Ibilixan Ibilixan bertso eskolara ingurutzia eta lanari gogoz heltzia.

Ze da Ibilixan ibilixan? Plaentxiako bertso eskolia.

Izena nundik dator?

Badao esaera bat behin aittitari entzun notsana eta asko gustau jatana: “Ibilixan ibilixan sartu nintzan txibirixan”.

Ze helburuakin sortu da?

Herrixan bertsoalaritza indartzeko ero pizteko.

Sekula egon da bertso eskolarik?

Bai. Oin dala urte batzuk. Lehelengo Eibarko Narbaiza bertsoalarixa eta gero Elgoibarko Meabazterretxea ibilixan erakusten.

Ze eitteko asmua dakazu?

Neska mutikuak kantura eta kantu girora zaletu. Hortarako bertso zaharrak eta kantu herrikoiak ikasiko dittugu eta beste milla gauza eiñ.

Eskolatik zek urtengo dau

bertsoarixak ala kantariak?

Nik neska mutikueri bertsoan erakustia nahi dotset eta ahalegin danak eingo dittut erakusteko, nik ez dot inor bihurtuko, nahi dabenak eta ahal dabenak urtengo dau, nik lagundu bakarrik eingo dotset.

Maisu izateko ze prestakuntza behar da?

Nik dakittela ez dao karrerarik bertso maisu izeteko, aittittak pe esaten dosta sarri: “heuk ez dakik eta, zela erakutsiko dotsek bestieri!...” Egixa, baina Bertsozale elkarteke eta beste bertso eskola batzuetako bertsoalarixak pe lagunduko doste pixkat eta hortik aurrera ba, noberan gogo ta ahaleginakin al dana eingo da.

Plaentxia bertsoalarixak sortzeko moduko herriak ete da?

Baietz pentsatze jata. Plaentxiak herri euskalduna da, hemen igual beste toki batzuetan baiño gehixao mantentzen da adarra joteko ohiturria, umore hori bertsoarako ona izen leikela pentzatze jata.

Zenbat denbora iraungo dau ikastaruak?

Aurten otsailetik maiatzera, astian bi orduko eskola bat izengo da, erabaki barik dao

ondio goiko eskolan ero behekuon emongo dan.

Bota bertsoa...

Ibilixan ibilixan sartu nintzan txibirixan eta bertsoan ikasi neban lenao enekixan plazan zinian elizan eguzkixaren azpizian guk oin kantuan egiten dogu bihar dan tokixan

Gurutze Ariznabarreta

IXILEAN

Bertsotarako gai aproposa?
Bertsoalarixa prailia konfesatzen
Bertsolaritza...

Euskal Herrixan daukaun ahozkotasan aberatsaren harri bitxietako bat

Etxebarri bertsoalaria...
Neri bakian laga enbusteriori !.

Bertsua botatzeko egoera aproposa.

Jendia entzuteko zain baldin badao, edozein toki da ona.

Bertsoalaria jaixo ala eiñ?
Bixak, Xalbadorrek esan eban “landare hoberena galduko da berdin, uzta nahi duenak behar du lan egin”



JABIER ALBERDI
HARATEGIA

Errebal kalea 24
tlfnoa: 943751932

KONTSUMO KOOPERATIBA

JANARI

ZAIN

JANTZIAK

TEL: 943751345

GARAI BATEKO ETA ORAINGO GABON FESTAK

Gabonetan orain eta gure gurasoen garaian opariak jasotzen ziren baina ezberdintasun batzuk daude:

Lehen opariak Erregeek ekartzen zituzten. Jostailuak pila gabeakoak edo gurasoek eginak ziren eta ez ziren paper dotoretan biltzen, asko jota paper zurian. Opari bat edo bi jasotzen ziren baina ez zen izaten nahi zena, ekartzen zu-

tena baizik nahiz eta eskutitez eskatu. Garai hartan asko balio zuten eta egun bakar bat zuten haiekin jolasteko eskolara joan behar zirelako

Orain berriz Olentzerok eta Erregeek ekartzen dituzte. Jostailu asko pila, bateria, e.a. dituzte eta paper disdiratsu eta koloretan bilduta etortzen dira. Erregalu asko jasotzen ditugu: 6, 10, 15 inguru, gehienak eskatu-




takoak. Orain ere nahiko balio dute baino egun asko, nahi haina, dugu berriekin jolasteko.

Kalejirak ez ziren egoten Olentzero edo Erregeek etorri aurretik, orain berriz noiz iristen diren aurrez dakigu

Gaur egun familia osoa elkarrekin ospatzen ditugu festak eta janari bereziak egiten dira.

Aintzina aldiz, ez zen aparteko berezirik eta bakoitza bere etxean izaten zen. Hala ere, orain guretzat nahiko txarrak izango liratezkeen opariekin, kartoizkoak adibidez, oso zoriontsuak ziren. Lehen eta gaur fetxa horiek noiz iritsiko irrikatzen egoten ziren eta jarraituko dugu.



LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA S.A.
Tornillería estanpada

Errekalde 21
telef. 943751600 eta 943751604
Faxa 943 752461 20590 SORALUZE

EDURTZA
KAFETEGIA

SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

TLF: 943751646
RABAL 2 SORALUZE

“DEBA IBARREKO EUSKERIA” ARGITARATU DU KOLDO ZUAZOK

“Deba ibarreko berbeten artian dagozan bardintasunak eta desbardintasunak” aztertu ditu Eibartar soziolinguistak.

Joan den Abenduan, Eibarren Portaleako aretoan egin zuen Zuazok bere liburu berriaren aurkezpena. Liburuaren atarikoan azaltzen duenez “Deba ibarreko berbetak banan-banan hartu, berbete bakoitxian zein arau betetzen dan ikusi dot lehenengo. Ondoren, horrek arauok zer eremu dauken begiratu dot, eta, azkenian, horren eremuon arabera, Deba ibarreko berbak sailkatu ditudu.”



“Koldo Zuazo (Eibar, 1956). Euskal Herriko Unibersidadian irakasle, Euskal Filologixa Saillian dihardu biharrian. Gaur artian liburu bi eta ikerlan ugari argitaratu ditu euskara eta bereziki euskalkixen gainian. Deba Ibarreko Euskeria da bere azkenengo lana.”

Soraluzeko hizkera, Eibar aldeko berbeten azpisailean.

Aztertu dituen 15 herriak 3 multzotan banatu ditu:

1. *Debagoiena*: Oñati, Leintz ibarreko lau herrixak (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, eta Arrasate), eta Arabako Aramaixo hartzen dituana.

2. *Debaerdikua*: Antzuola eta Bergara, alde batetik eta *Soraluze*, Eibar, Elgeta eta Bizkaiako Ermua eta Zaldibarko Eitzaga auzua hartzen dituana, bestetik. Bigarren alderdi honetakoeri *Eibar aldeko berbetak* deittuko deutset saio hone-

tan.

3. *Debabarrrena*: Elgoibar, Mendaro eta Mutriku hartzen dituana.

Soraluzen ts- tx egiten da eta, tz eta ts - s esateko joeria

“*Debabarreneko eta Debaerdiko bereizgarriak*” atalaren barruan gure herriko euskararen ezaugarriak ere badatoz, tartean bi hauek : “*Soraluzeko kaletarren jardunian, eta Bergarako Osintsu auzuan; “arratsalde” atxalde, “atso” atxo, “mahats” matx egiten*

da. Soraluzen gainera “haitza” aisa, “urtetzia” urtesia, “ilumtzean” ilunsixan esateko joera dago”.

Mendebaldeko euskeriaren eta euskera kiputzaren arteko lehia deba ibarrian.

Azterketen ondorioei dagokien atal honetan, *euskera kiputzak* Deba Ibarrian daukan eraginaren arrazoiak azaltzen ditu, euskalzaletasuna Gipuzkoan handiagoa izan izana, elizak egindako elizbarrutien banaketa etab. Baina halere “*Ez da inundik inora be egixa mendebaleko euskera beti gainbehera doiala, eta gaillu-*

rrera begira beti euskera kiputxa”. Azken baieztapen hau arrazoitzeko -rantz & -rutz morfemak, zeintzuk, zertzuk, nortzuk izenordainen erabilerearen indartzea, baina bereziki -t(z)eke atzizkiaren gorakada, euskaldun guztien artean.

Deba garaia eta Deba behe-rea ez, Debagoiena eta Debabarrrena bai.

Bere liburuan honela mintzatzen da labor bezain zorrotz, bi izen hauei buruz: “*Juan dan urtiotan Deba garaia eta Deba behe-rea erabili dira gure artian baina horrek izenok ez dira jatorriz guriak. Gure toponimixan barren eta goien erabili izan ditudugu.*” Zuazok dioenez “*eguneroko jardunian be prakabarrenak, gonabarrena esaten dogu. Euskal gaiztua dira, gure artean behintzat, Deba garaia eta Deba behe-rea horrek.*” Zuazoren ustez, ez dago euskal gaiztorik onartzerik eta Debagoiena eta Debabarrena erabiltzea egokiagoa litzateke.

Euskalkixak Etorkizunian.

Liburuaren azken atal honetan Zuazok Euskalkiak nola, noiz eta non erabili behar direnaren gaineko gogoeta egiten du eta egitasmo txiki baina in-



Euskal Herriko Euskalkien mapa (Koldo Zuazo 1999.)



teresgarri bat aurkezten du bertan. egilearen ustez “ euske riaren gainbehera geldittu egin da, eta geldittu ez eze, indartzen be hasi da da atzera barriro.” Baina “ Zenbait gauzatan oker jokatu da, eta galdu be egin da. Sarrittan, askorik pentsau barik, bat be planifikatu barik egin dira gauzak .Borrondate onez baiña

ondorixueri larregi begiratu barik. Eta, hain zuzen plamiffikau ez dan gauzettalko bat, atzera egin dan esparruetalko bat, euskalkixarema izan da.”

Zuazok euskalkiek euskararen hedapenean, kalitate eta osasunean euskalkiek duten garrantzia azpimarratzen du. Horregaitik euskalkia bizirik dagoen tokietan berau erabilteko beharra adierazten du,

“700.000 euskaldunetik gora bizi dira Deba ibarrian, eta 60 000 inguru dira bertako berbetia dakixenak”

batez ere euskara batutik alduendugo dauden euskalkien eremuetan, aisialdian, irakaskuntzan, herri hedabideetan eta administrzioan izan behar duen presentziaren zenbait erizpide eta arrazoi emanaz. Batuarenganako dugun gaizki ulertuaz ere badiardu atal honetan. Azkenik liburua azken urte hauetan, euskalkiaren indartze eta zabaltzearen alde emandako beste urrats bat bezela baloratu du.

Deba ibarreko hiztunei eskeinitako liburua, Euskalkian idatzita.

Koldok liburua euskalkian idatzi du oso osorik, teorian ezezik praktikan ere euskalkia erabiltzeko bidean urrats bat gehiago eta bultzada bat eman nahi izan du, hontaz gain, bere lana Deba Ibarreko hiztunei eskeini die. Hontaz gain, ahalik eta irakurle gehienek eskura jartzeagatik hizkera erraza eta argia erabiltzen ahalegindu da, beti ere. Beraz badakizue lortu eta irakurri gure euskara indartu eta aberasteko Koldo Zuazok idatzi duen lan eder hau.

Egoitz Unamuno

HAURRENTZAKO IPUINAK IZAN ZIREN BALTEGIETAN

Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeek antolatuta, 5tik 8 urtera bitarteko haurrentzako Gabonetan Ipuin Kontari izeneko programaren barruan, 3 ipuin kontatu ziren. Haur ugari bildu zen Baltegieta Gela Urdinera eta une atseginak igarozituzten, fantasiazko munduetan barrena.



Haurrek adi adi jarraitu zituzten kontalariak esan hitz eta egiten zituen keimurik txikiak ere.

UDALAK ETA IKASTETXEEK ANTOLATUTAKO KULTURASTE

Abenduaren 20tik 24ra bitartean Udaleko Hezkuntza Batzordeak eta Sorluzeko ikastetxeek antolatuta kultu astea egin zen. Dena-rik izan zen kultur aste horretan, kale antzerkia, magia, liburu eta diska azoka, hitzaldia eta azkenik Olentzeroren etorrera ere bai. Antolatzileak eta noski, baita parte hartu zuten guztiak ere oso gustora azaldu ziren egindako ekitaldien ostean.



Liburu eta diska azokan Euskara Batzordeko ikasleek bete zituzten, jendearen eskariak.

ARRANO-TABERNA

SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

Benito

Anaiak

Altzariak



Santa Ana 26 tfnoa: 943752047



San
Roke
Txiki
eguna
1961

Argazki hau, 1.961. urteko abuztuaren 17xan, San Roke Txiki egunez etaratakua da. Plaza Zarrian beren musika instrumentuak eskuetan hartuta azaltzen diran "artistok"(zentzurik maitakorrenian esanda), honako honek dira:

Ezkerretik eskumara zutik azaltzen diranak: **Ignacio Aristi, Jose M^a Lonbide, Antonio Aristi, Ramon Arzuaga eta Felix Reguilon.**

Makurtuta (parrandan ibilitta edo?) azaltzen dan paria berriro: **Luis Guzman eta Domingo Guzman.**

*Argazkixa laga eta informazioa eman doskuna:
Nerea Isasti.*

Ohartxo bat: Eskerrikasko oiñarte argazki zarrak helarazi dozkuzuezen danori. Baina ez gara aspertuko, behin eta berriro, aldizkarira argazki zarrak ekartzeko eskatzen. Ez euki galduko dan bildurrik, zeuek emondako moduan bueltauko dotxueguz. Animau eta erakutsi daneri gordeta daukazuezen argazki politt horrek. Zuen argazkixen zain gare. Laga ,27. Posta kutxatilan edo gutakon bati emon edo deittu Pil Pileko 943 75 13 04 telefonora eta laga bertan mezua.

ETXEBARRI[®]

Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskatzaileak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefonoa(943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

ARANE
Kiroldegia



Tel: 943752466

SAN BLAS OPILAK

Otsailak 3 **San Blas eguna** da eta hemengo ohitura jarraituz herritar ugari joango da elizara bere San Blas opilak bedeinkatzeko asmoz, San Blas, eztul eta iztarriko minen zaintzaile den legez, bere opil bedeinkatuak janaz gure eztarriak zainduko dituelakoan.

Batzuk, opil hauek sendatzeko duten gaitasuean sinisturik, beste batzuk, tradizioz soilik, ia guztiok jango dugu egun honetan San Blas pusketaren bat. Baliteke egun honetaz ahazturik dagoen norbait, edo opil hauek nola egiten diren ez dakienik ere egotea, eta horretarako dago Pil-Pilean zuei errezeta emateko prest.



Ume batzuk bere opilekin bedeinkatu ondoren

Nola egin:

Irinarekin zirkulu bat egiten da eta erdian arraultzak, azukrea, esnegaia, gurina eta anisa jartzen da. Dena ondo nahastu, eta ogi masa izango balitz bezala landuko dugu, masa fin bat lortu arte mahaian itsasten ez dena. Lortu nahi den opil tamainuaren arabera zatiak egingo ditugu eta rodiloaz emango diegu forma. Ezkinako formak atzamarrekin egiten dira. Ondoren, labara sartzen da.

GAINEKO ZURIA

Lapiko batean 6 ur goilarakada eta 10 azukre goilarakada jartzen dira eta irakiten utzi. Ontzi batean, gordetako zuringoa irabiatzen hazi eta bereala aurreko nahasketa (azukrea + ura) irakitzen botako zaio gutxika gutxika nahastu ahala, eta irabiatzen jarraitzen da hoztu arte.

Azkenik, opilei gaineko zuria ematen zaie gomadun paleta batez. Hozten utziko da eta gero prest dago jateko.

Oharra: opil batzuei gaineko zuria eman ondoren, gainontzeko zuria gogortzen bada, ur piskat bota eta apur bat berotu ondoren konpontzen da arazoa.

OPILAK

Osagaiak:

- Irina 1Kg
- Gurina 200 gr
- Azukrea 250 gr
- 8 arraultza (zuringo bat gordeko dugu opilari gaineko zuria egiteko)
- Anis esentzia apur bat
- Esnegaia (ahal dena)

GILA TABERNA

OPILAK

INAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 3/8 tlf: 943751249

SORALUZE

Kirolberri

"OLADOK" TXAPELDUN FUTBITO TXAPELKETAN

Kiroldegian jokatu zen gabonetako futbito txapelketan Oladok taldea suertatu zen txapel-dun. Txapelketan orotara, zortzi taldek hartu zuten parte eta finalean Oladok talde gaztea nagusitu zitzaion Skozis talde *beteranoari* 5 eta 2 ko emaitza esanguratsuekin.



Argazkian Oladok eta Skozis taldeak

SORALUZeko FUTBOL TALDEEN SAILKAPENAK

Hauek dira talde bakoitzaren sailkapen postuak:

Erregionala: Sailkapen taularen erdialdean doa 10. Postuan.

Jubenilak: Larri samar dabitza 15. Postu inguruan.

Kadeteak: Ligan 2. Gelditu ostean igoera fasea jokatzen ari dira. Lehen partidua 2 eta 2 berdindu zuten Elgoibarren kontra eta bigarren partidua Santo Tomas Lizeoaren aurka 2 eta 1eko emaitzarekin galdu.

XUBAN KATALAN: "Kirola euskaraz" eko entrenatzailea

"EUSKERIAK ETA KIROLAK BATERA JOAN BEHAR DABE"

Udaletxeak aurtengo ikasturtean "Kirola euskeraz" kanpaina bultzatu nahi izan du. Kanpaina honen helburua ikastolan dabilzan umeek kirolean euskera erabiltzea da. Honetarako, egitasmo honetan parte hartu nahi zuten guztiei, gonbidapena luzatu zien, bertan, euskeraren alde burubelarri jarduteko asmotan. Dei honi Soraluze-ko hiru gaztek erantzun zioten eta horietako bat Xuban Katalan dugu, zeinak, ekimen honen gorabeherak argituko dizkigun.

Zer da "kirola euskeraz"?

Kirolean euskera erabiltzeko eta bultzatzeko aurrera eraman nahi den egitasmoa da.

Zeinek bultzatu du programa hau?

Guregana jo zuena, Udaletxeko Mikel euskera teknikaria izan zen eta berak eman zigun asmo honen berri.

Orain dela zenbat hasi zarete programa honekin? Beste herri batzuetan ere ematen al da?

Ikasturte berriarekin batera hasi ginen; guretzako gauza berria da. Badakigu ikastaro batzuk ematen direla Eibarren, eta horrek esan nahi du, Soraluze gain, badaudela beste herri batzuk proiektu honetan lanean ari direnak.

Ezagutzen al du herriak "kirola euskeraz" programa?

Ezetz esango nuke. Gutxi batzuk bakarrik ezagutzen dugu; kontutan izan behar da gauza berria dela, poliki poliki egiten ari den lana da; hala eta guztiz, ziur nago herriak programa hau hobeto ezagutzeko aukera izango duela.

Orain zenbat entrenatzaile zaudete? Bakoitza zein arlotaz arduratzen da?

Kirola euskaraz programa

Irabazleak behar ditugu!

**EUSKARAZ
DENOK
IRABAZTEN
DUGU**

Deba arrok Udaletxeko



Une honetan hiru gara umeekin lanean ari garenok, Haritz Sudupe (eskubaloia), Nerea Boyar (saskibaloia) eta ni (futbola).

Zenbat ume dituzue zuen esanetara?

Kopuru zehatzik ez dakit, baina asko dira; kontutan izan txikiak zortzi urte dituztela eta nagusiek hamahiru; tarte horretan kirola egiteko izena ematen duten guztiak asko direla jakinda, esan daiteke kopuru nahiko haundiarekin ari garela lanean.

Nolakoa da guraso eta irakasleen parte hartzea?

Lehen esan dudana bezala, hau dena nahiko berria da, hargatik jendeak oraindik ez du ondo ezagutzen zertan datzan; orain arte parte hartzea oso haundia ez izan arren, ezagupenarekin batera, guztion inplikazioa gehituz joango denaren iltzaropena daukat.

**Iñaki Alberdi
Bittor Trebino**

HERRIKO PELOTARIEK EMAITZA BIKAINAK LORTU ZITUZTEN

Bikainak izan dira bai herriko pelotariek pasa den urte honetan lortu dituzten emaitzak. Askoz gehiago diren arren aukeraketa bat egin behar izan dugu eta hauek dira garaipenik garrantzitsuenak:

Debarroko Txapelketan

Kadeteetan; Txurruka eta Jauregi txapeldun.

Gasteizko Parte Zaharreko Txapelketan

Kadeteetan; Txurruka eta Resano txapeldun.

Gasteizko San Anton Sariketan

Unanue eta Varela Txapeldun, hasiberrietan txapeldunorde Atxotegi eta De Luis, Kadeteetan Txurruka eta Resano txapeldun.

Elgoibarko San Anton Txapelketan

Txapeldunorde Laskurain eta Balzola (Elgoibar).

Berrizko Txapelketan,

Benjaminetan; Varela izan zen txapeldun.

Mendexako Udako Sariketa

Kadeteetan; Txurruka eta Goitia (Lekeitio)

Lekeitioko Estaligabeko Plaza Txapelketan

Kadeteetan; txapeldun Txurruka eta Malalexatxebarria (Berriatua).

Elgetako 4 1/2 ko Txapelketan

Kadeteetan; Azagirre txapeldun

Baque Sariketan

Kadeteetan, Txurruka eta (gazteetan) Jauregi txapeldun

DIABETESA

Zoritxarrez, gure gizartean, eta batez ere hedadetuen artean oso zabaldurik aurkitzen den gaixotasuna dugu. Hau dela eta nahiz aurreko alean aipamen txiki bat egina dugun oraingo hontan sakonago aztertuko dugu.

Diabetesa, odolean azuke maila altua sintoma gisa duen gaixotasuna dugu. Odoleko azukre mailaren igoeraren erantzulea insulina deituriko hormona baten faltari dagokio. Pankreak kanporatzen duen insulinaren funtzioa, odoleko azukreari gorputzeko zeluletara pasatzen laguntzearena da. Horrela, hormona honen bitartez erabiltzen ez den azukrea erretserba gisa gordetzen da.

Bi diabetes mota aurki ditzakegu:

- **I tipoko diabetesa:** Gazteen diabetesa bezala ere ezaguna dugun hau, 30 urte baino lehenago agertzen da eta oso ezegonkorra dugu. Gaixoarengan insulina falta handia sortzen da eta insulina ziztatu beharra izaten du gorputzera.
- **II tipoko diabetesa:** 40 urtetik aurrera agertu ohi da eta sarri gaixotasuna agertu eta urte batzuetararte ez da jakitzen hau daukazula. Normalean persona gizenetan sarriago ematen da eta erregimen batez aurre eginten zaio nahiz eta batzutan insulina ziztatu beharrera irits gaitzke.



Gaixotasun honen ezaugarriak hauek dira:

- 1-Poliuria (txixa kantitatearen igotzea)
- 2-Polidipsia (egarriaren gehitzea)
- 3-Polifagia (Gosearen gehitzea)
- 4-Astenia (Egun guztian nekea sentitzea)
- 5-Argaltzea: Intsulina falta dela eta azukrea ez da gorputzeko zeluletara iristen eta hauek dituzten erretserbak erabiltzen dituzte energia sortzeko.

Gaixotasun honek zenbait konplikazio ekar ditzake, batez ere odol basoei erakiten dietenak (arterisklerosia). Odol basoen konplikazio hau batez ere oinetan ematen da eta hauetan gangrena sortzera heldu daiteke. Honetaz gain "insuficiencia renal" delakoa eta nervio sistemaren desoreka ere ekar ditzake.

ONEGI

Amodio Gutun Lehiaketa

PARTE HARTZAILEAK

- Partahartzaileek Soraluzetarrak izan beharko dute.
- 14 urtetik gorakoentzat.

LANAK

- Lanak euskaraz idatzitakoak, jatorrizkoak, inoiz argitara gabeak eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabeak izango dira. Itzulpenik ez da onartuko.
- Lanak txukun eta garbi aurkeztuko dira, eskuz zein makinaz idatzita.
- Gaia Amodio gutuna izango da.
- Gutunaren luzeera Bi A4 baino gehiago ez.

AURKEZTEKO MODUA

- Gutunak sobre haundi batean aurkeztuko dira, eta bertan honakoak sartuko dira:
 - A) Gutuna egilearen izenik jarri gabe, izenaren ordean goitzen bat jarriko du.
 - B) Beste sobre txiki bat, kanpoan egilearen goitizena eramango duena eta barruan egilearen izen abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefono zenbakia.

AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

- Gutunak Soraluzeko Udaleko euskara zerbitzuan aurkeztu beharko dira edo 27 posta kutxatilara bideratuko dira Otsailaren 12a baino lehen.

EPAIMAHAIA

- Lanak Udaleko euskara eta kultura batzordeko 3 kidek osatutako epaimahaiak epaituko ditu.

SARIAK

- 1. saria: 10.000 pezeta (60 ≠ gutxi gora behera).
- 2. saria: 5.000 pezeta (30 ≠ gutxi gora behera).
- Epaimahaikoen iritziz idazlanek ez balute kalitate maila egokirik ez da sariturik izango baina bere kalitategatik lanen batek mereziko balu, akzesiten bat eman ahal izango da.

BESTELAKO OHARRAK

- Pil-Pilean Aldizkariak saritutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du.
- Saritu gabeko lanak hilabeteko epean jaso ahal izango dira aurkeztutako leku berean eta epe horren buruan jaso ez direnak suntsitu egingo dira.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaikoen erabakiak onartzea dakar.

ANTOLATZAILEAK

- Pil-Pilean Kultur Elkarte eta Soraluzeko Udaleko Euskara-Kultura Batzordea



Erregegi
Jatetxea
ESOZIA

B^o Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

MENDIZABAL OKINDEGIA



Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091
Baltegieta, 6 -Tlf: 943751399

Orain Euskadiko Kutxan

• EPERAKO AURREZKIA • AHORRO A PLAZO • EPERAKO AURREZKIA • AHORRO A PLAZO • EPERAKO AURREZKIA

Bikoiztu ezazu interes-tasa • Dobra el tipo de interés

Participas con el N°

Zki. arekin hartzen duzu parte

Fecha de sorteo

Zozketa-eguna

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Otsailaren 18 arte

LEHIAKETA



**ASMA ZEIN DEN
ALE HONETAKO GU-
RE PERTSONAIA ETA
IRABAZI 2 PERTSO-
NARENTZAK AFARI
ZORAGARRI BAT !!**

Deitu 943 75 13 04 zenbakira
eta utzi zure erantzuna eta
telefono zenbakia.

AURREKO ALEKO IRABAZLEA: Ander Epelde



G A Z T E L U P E K O
H O T S A K



Joseba Tapia
QUÉBEC kantari
Pascal Gaigne
Itxaro Borda
Koldo Izagirre...

Tlf 943753016 Faxe 943750139 94.p.k. Soraluze 20590



Lorelei

Tatuatu zenidan zerua

Asier Serrano eta
Mikel Gorosabel "Norton"
Beraien bigarren lana



Mikel Urdangarin
Haitzetan

Kantari bizkaitarraren
lehen grabazioa



Ene Bada

Durangaldeko
boskote Gaztea

Triki-rock Ai ene!!!!



Mikel Markez

Dena hankaz gora

Eta Pako Aristirekin
Tribuaren hitz galduak



Petti

Amets bat

Euskal Yarragh
Folk/blues

Berako harrobia



Mikel Telleria

Deklarazioa

Pop rockaren hildotik



Piztiak

Zero

Talde rokanroleroaren
diskorik rokanroleroena

Bideoklipa PCrako



Bide Ertzean

Zure Minari

Ubeda anaien proiektua
Kaki Arkarazok ekoiztua



Su Ta Gar

1987-89

Hasierako maketen
kantuak

Jo Ta Ke klipa PCrako



**Aldizkari honek Soraluzeko Udalaren
dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**

